

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Txiletik haize berria

Gabriel Boric-ek irabazi ditu Txileko hauteskundeak. Zorionez, itxaropenak beldurrari irabaztea lortu du. Zorionez diot, ezen eta Kast hautagaiak esan eta proposatzen zituenak benetan beldurgarriak ziren eta dira.

Era berean, ez dezagun ahaztu hautesleen %44k Kas- ten aldeko botoa eman zuela eta populazioaren sekto- re honek etorkizunean ere ez dizkiola gauzak erraz ja- rriko Boric-en gobernuari. Duela ez asko Amerikan ezkeraren zikloa agortua zegoela ondorioztatu zuten horientzat guztientzat kontrakoa esatera datorren beste emaitza bat.

Txileren historia garaikideak badu Estatu espainole- koarekin antzekotasunik. Estatu-kolpe faxista, dikta- dura gupidagabea, diktadorearekin adosturiko tran- tsizioa, sasidemokrazia, faxismoarekin apurtu ez izanaren ondorio lazgarri guztiak.... XX. mendearen azken laurdenean eta XXI.aren hasieran Txilek Estatu espainolaren akats gehienak errepikatu ditu, bata bes- tearen atzetik. Azken urteetan Txilen izandako erre- boltek, ikasle mugimenduak eta mugimendu sozialek abiaraziko borrokak, mar- txan dagoen konbentzio konstituzionalak eta orain egin berri diren hauteskun- deen emaitzak joera horri amaiera ipin diezaiokete. Estatu espainolean orain- dik gertatu ez bezala, Txile- len aukera erreala dago trantsizioa behar bezala amaitzeko. Pinochet siste- marekin behin betiko apur- tu nahi duen mugimendu politiko txiletarrak gero eta indar gehiago dauka, gero eta babes gehiago aurrera egiteko eta ondorioz gero eta aukera gehiago. Horren bueltakoak ere baziren hauteskunde hauek. Horrega- tik, Txileko egoerak, Txileko prozesuak, interes bere- zia dauka gu guztiontzat, estatuaren demokratizazio- an aurrerapausoak eman nahi dituen ororentzat.

Bidea zaila eta arazo zein kontrarioz beterikoa da, urteetan pribilegioak pilatu dituztenek nekez galduko baitituzte borondate onez. Ikusi beharko da prozesu horrek zer ematen duen eta zer uzten duen beste ba- terako. Koiuntura eta indar korrelazio jakin eta zehatz

baten aurrean zer lortu eta zer baztertu izaten da era- baki zailena.

Asmoen eremutik lorgarriaren eremura pasatzen garenean momentu historiko zehatz bakoitzean zer den lortu daitekeena asmatzen jakitea izaten baita mugimendu eta indar politikoen zeregin zaileneta- koa. Galderari erantzun okerra emanez gero, eta ezi- nezkoa da beste zeozer erabaki izanez gero zer gerta- tuko zen asmatzea, emaitza oso bestelakoa izango baita. Emaitzak ei dira garrantzitsuena, eta horrela da bizitzaren eremu gehienetan ere. Txileko konbentzio konstituzionala prozesu interesgarria da dudarik ga- be, eta hobeto neurtu eta ikusiko dugu bere garran- tzia emaitzak ikusi eta baloratu ahal ditugunean, bai- na prozesua bera ere aztertzeke modukoa da. Erabili duten metodoa, ematen ari diren pauso diferenteak, ordezkari konstituziogileak hautatzeko sistema, gaiak hautatu eta jorratzeko metodologia... Bidea bera ari- keta interesgarria da, dudarik gabe. Pepe Mujicak maiz oroitzen digun bezala, E egunik gabeko paradig- maren aurrean bideak dauka garrantzia. Norbere bi- deak eta kolektiboak.

Txilen aukera erreala dago trantsizioa behar bezala amaitzeko. Pinochet sistemarekin behin betiko apurtu nahi duen mugimendu politiko txiletarrak gero eta indar gehiago dauka

Finean, Txile Estatu espainolaren eredu traketsa baztertu eta beste bide berri bat ibiltzera doa. Norai- no iritsiko diren ez dakigu, baina espero dezagun iraganeko sistema faxistan errotutako lege, pribile- gio, arau eta sistemarekin behingoz eta guztiz apur- tzeke norabidean pauso sendoak emateko aukera izatea. Espero dezagun bide hori, beste guztiontzat, gu guztiontzat ere, lagungarri eta eredugarri bilaka- tzea.

Victor Jarak abesten zuenaren ildotik herriak, herri- tarrek bakean bizitzeko eskubidea baitaukate. •